

## ezagutzen al duzu Donostia?


### Mandillen parada

Negu garaia ezinhobea da Altza-Basuko inguru paregabea ezagutzeko. Horretarako Aranoko Bentaberri ostatu ezaguneraino helduko gara. Hemendik abiatu eta Urumea ibaia zeharkatu ondoren, Oretetakoa den Argorri baserriaren ataritik pasatzen gara. Jarraitu bidea. ateka bat pasa eta Altza Basuan sartuko gara. Altza-Basua Donostiak duen basorik ederrena da zalantzarik gabe; bere haritz, pago, altza eta hainbat zuhaitz motek edertzen dute gure txangoa. Maldan abiatzen garelarik, *Xantiyon-egiyan* gora, hankak arin, bide-makuta\* polit batean barrena, laister helduko gara *Apaizen-paradara*.\* Leku honetan dago baso honetako «txosna» bakarra, arbaz eta iratzez egina; bertan babesten dira ehiztariak basurdeen zelatan egoteko. Nekatu gabe jarraitzen dugu gora eta *Biorren-parada* pasatu ondoren *Mandillen\*-paradara* helduko gara.



Apaizen-  
paradako  
arbaz eta  
iratzez  
egindako  
txosna

*Mandillen-parada* hideska zoragarriez zeharkatua. Garai batean oso mendi-lepo zabal bat da.



Mandillen-paradako lepoa eta bidea

ezaguna zuen leku hau: inguru hauetan hainbat ikazkin, basomutil eta mandazainek lan egiten baitzuten. Lekua biltokibat zen: bertan atseden hartzen zuten pertsona eta abereek. *Mandillen-parada*n egi bihurtzen zen esatera zaharra: «Lau mando eta bost karga hartutako lekuan deskarga!»

\* BIDEMAKUTA. Mendien hegian zeharguneak egiten doan mando bidea.

\* PARADA. Ehiza-zeletarako lekua.

\* MANDILLAK. Mandoaren lepoaren bi aldetatik zintzilikatzen diren zakurak.

JOSU TELLABIDE

## HIZKUNTZ TAILERRA

ANTIGUAKO AUZOAN

- Frantsesa eta Ingelesa
- Sei urtetik aurrera
- Talde txikiak
- Ekintzak: abestiak, jokoak, bideoa,...
- Kurtsoaren hasiera otsailaren 1ean

Informazioa eta matrikula  
urtarrilaren 23tik aurrera  
arratsaldeko 5etatik 9tara

JAKINTZA HIZKUNTZ ESKOLA Mikelete kalea, 10 - Tfnoa.: 21 28 24



**TXUBILLO**  
GRAFIKAGINTZA

BENTA BERRI AZPI  
KRISTOBAL BALEZIAGA, 58

IGELDO DONOSTIA

**OFFSET  
INPRENTA**

Tfnoa.: 21 68 55

Faxa: 21 68 55